

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nasuvinsak lau etxebizitza utzi dizkio Gizakia Herritar / París 365 fundazioari aldi batez ostatu gisa erabiltzeko

Horietatik bi errentan emango dira, eta beste biak erregimen prekarioan.

Lunes, 17 de febrero de 2014

Nasuvinsa enpresa publikoak hamar urterako lankidetzeta-hitzarmena sinatu du Gizakia Herritar / París 365 fundazioarekin. Fundazioa hainbat proiektu solidariotan ari da lanean, beraz, lau etxebizitza utzi dizkio, bi errentan eta beste bi erregimen prekarioan. Fundazioak etxebizitza horiek "viviendas comunitarias-París Etxea" izeneko baliabiderako erabiliko ditu, behar dutenei aldi baterako ostatua emateko.



Lehen bi etxebizitzaren errenta bost urterako ezarri da eta, epea amaitu ondoren, urtero luzatu ahal izango da, beste bost urte egin arte. Etxebizitzek egongela, sukaldea, bainugela eta hiru logela dituzte. Etxebizitza bakoitzerako zehaztutako alokairua 300 eurorena da. Komunitate- eta hornidura-gastuak errentariak ordaindu beharko ditu; Nasuvinsa, aldiz, OHZ ordaintzeaz arduratuko da. Gizakia Herritar / París 365 fundazioak haurrak dituzten familiei utziko dizkie etxebizitzak.

Erregimen prekarioko etxebizitzaren kasuan, hamar urteko denboraldia ezarri da. Hiru logela, egongela, bainugela eta sukaldea dituzte. Prest izateko egokitzapen-lan batzuk egin behar dira, eta fundazioak horiek burutzeko konpromisoa hartu du. Horren truke, komunitate-gastuak eta OHZ bakarrik ordaindu beharko ditu. Gizakia Herritar / París 365 fundazioak errehabilitazio-prozesuetatik datozen pertsona bakarrei utziko die etxebizitzetako bat, gizarteko bizitzara egiteko prozesua errazteko. Beste etxebizitza, duen antolaketagatik eta handiagoa izateagatik, tutoretzapeko edo larrialdietako ostatu gisa erabiliko den aztertzen ari da fundazioa. Bi etxebizitzetan galdara aldatu behar da, argindarraren eta telekomunikazioen instalazioak guztiz berritu behar dira, leihoak, pertsianak, pertsianen kutxak eta leiho-ateak aldatu behar dira, etxebizitza osoan zoladura eta zokalo berriak jarri behar dira eta horma eta sabai guztiak pintatu behar dira. Etxebizitzetako batean, gainera, barruko eta sarrerako ateak aldatu behar dira, eta, bestean, berokuntza-zirkuitua eta

berogailuak prest jarri behar dira, sukaldeko iturgintzako eta saneamenduko instalazioa berrikusi behar da eta, bainugelan, sartzeko atea, iturgintzako instalazioak eta komun-ontziak aldatu behar dira.

Nasuvinsak Gizakia Herritar / París 365 fundazioari utzitako lau etxebizitzak fundazioak 2011n abian jarri zuen "Viviendas Comunitarias - París Etxea" izeneko baliabiderako izango dira. Horren bidez, aldi baterako ostatua ematen zaie behar duten pertsona edo familiei (3 eta 24 hilabete artean), etxebizitza duin eta egonkor bat eskuratzen duten arte.

Baliabidearen onuradunek, gainera, laguntza batzuk jasoko dituzte. Horien helburua etxebizitzaren erabiltzaileak, modu autonomoan eta arrazoiko epean, euren egoera "normalizatu" ondoren programatik irten ahal izatea da. Laguntza horien artean dago gizarte-laguntza, elkarbizitza kudeatzeko laguntza eta horren jarraipena, laguntza psikologikoa eta, oro har, fundazioak eskaintzen dituen beste baliabide batzutarako sarbidea, kasu bakoitzaren arabera.

Gaur egun, "Viviendas Comunitarias - París Etxea" baliabidearen barruan, fundazioak errentan emandako bost etxebizitza kudeatzen ditu, guztira hamalau gela. Nasuvinsak utzitako hiru etxebizitzaren bidez gaur egungo hiru ordezkaturako dira, erosotasun-baldintza hobekak dituztelako eta plaza kopurua handitzea ahalbidetzen dutelako (16 gela, horietako asko bikoitzak dira).

Gaur egun, "Viviendas Comunitarias - París Etxea" baliabidearen barruan, fundazioak errentan emandako bost etxebizitza kudeatzen ditu, guztira hamalau gela. Nasuvinsak utzitako hiru etxebizitzaren bidez gaur egungo hiru ordezkaturako dira, erosotasun-baldintza hobekak dituztelako eta plaza kopurua handitzea ahalbidetzen dutelako (16 gela, horietako asko bikoitzak dira).

"Viviendas Comunitarias -- París Etxea" programan parte hartzeko hautapen-irizpideak eskariaren premian, plaza hutsetan, pertsonak gizarteratzeko duen borondatean, interesean eta motibazioan, eta elkarbizitzarako eta funtzionamendurako arauak onartzean oinarritzen dira. Alokairuaren gastua ordain dezaketen pertsona edo familiei 120 euro kobratuko zaie hilean, gastu guztiak barne.

2013an 23 pertsonak hartu zuten ostatu etxebizitza horietan eta, batez beste, 6,3 hilabeteko egonaldiak egin zituzten. Horien artetik hamarrek ez zuten alokairurik ordaindu, seik uneren batean ordaindu zuten, eta zazpik egonaldi osoan ordaindu zuten alokairua.

Gizakia Herritar fundazioa 2008ko abenduan eratu zen eta bere egiteko nagusia gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsona eta familiak, baita edozein motako diskriminazioa jasaten duten taldeak ere, erabat gizarteratzen laguntzea da. Horretarako, justizia soziala eta pertsona eta herri guztientzako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotzen diren giza eskubideen defentsa eta errespetua sustatzen ditu. "Comedor Solidario París 365" da eskaintzen duen baliabiderik ezagunena. Horri esker, lau urte eta erdian 117.000 bazkari eta afari baino gehiago banatu ditu. Gaur egun, hilean 500 pertsonari ematen die arreta dituen baliabideen bitartez.